

**EPAIMAHAIAREN AKORDIOA.** Akordio honen bidez onartzen dira laguntzako langileen talde profesionaleko **MANDATARIAREN (Ordenantza) hautaketa-prozesuaren bigarren ariketaren behin-behineko emaitzak, desgaitasun intelektuala duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesukoak.**

Akordio honetan ikus ditzakezu desgaitasun intelektuala dutenei zuzendutako hautaketa prozesuan **ordenantzako** hautaketa-prozesuaren **bigarren ariketaren behin-behineko emaitzak**, gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak. Gainera, behin-behineko emaitza horiekin ados egon ezean eman beharreko pausuen inguruko informazioa jasoko duzu.

### **Akordio honetan informazio hau aurkituko duzu:**

**1.- Bigarern ariketaren behin-behineko emaitzak onartzea.**

**2.-** Ados ez bazaude behin-behineko emaitzekin, **erreklamazioa** jarri ahal izango duzu emaitza horien kontra. Horretarako 10 eguneko epea izango duzu, akordio hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



- Euskararen proba egiteko deialdiaren zehaztasunak bigarren azterketaren behin betiko emaitekin argitaratuko dira.

## Non ikus ditzaket onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak?

Zerrenda hauek ikusteko IVAP-eko web orrialdean sartu behar duzu:

<https://www.ivap.euskadi.eus/enplegu-ivap/>

**Adimen-desgaitasuna duten pertsonak**  
atalean.

< IVAP  
**Enplegu publikoa**  Administrazio Publikoaren Euskal Institutua


Hautanet ▾ Lan-poltsak ▾ Beste deialdi batzuk ▾

**Arlo nagusiak**

-   
**Enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta salbuespenekoak**  
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak
-   
**Adimen-desgaitasuna duten pertsonak**  
Hautaketa-prozesu berriak
-   
**Lan-eskaintzak**  
Lan-eskaintzen kontsulta, harpidetza egin eta kendu...

Hurrengo pantailan sakatu botoi hau:

**Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena**



Hemen, urdinez agertzen den zati horretan egin behar duzu klik,

“Identifikatu hemen” jartzen duen lekuan

## Enplegu publiko

Egoitza elektronikoa

HAUTAKETA-PROZESUA

**Identifikatu hemen** hainbat izapide egin ahal izateko

Identifikazio elektronikoko baliabide baten bidez identifikatu behar da, hautaketa-prozesuaren jarraipena egiteko, erreklamazioak egitea, puntuazioak kontsultatzeko, zerrendak ikusteko eta beste izapide batzuk egiteko.

Deialdiak

Q Bilatu deialdiak

**LAGUNTZAKO LANGILEEN TALDE PROFESIONALEKO MANDATARIA**  
Deitzailea: Administrazio orokorra  
Deialdiaren fasea: Erreklamazioak aztertzen

**SUKALDEKO LAGUNTZAILEA**  
Deitzailea: Administrazio orokorra  
Deialdiaren fasea: Erreklamazioak aztertzen

Ondoren IDENTIFIKATU botoia sakatu.



## Enplegu publikoa

HAUTAKETA-PROZESUAK

### Identifikatu hemen hainbat izapide egin ahal izateko

Identifikazio elektronikoko baliabide baten bidez identifikatu behar da, hautaketa-prozesuaren jarraipena egiteko, erreklamazioak egitea, puntuazioak kontsultatzeko, zerrendak ikusteko eta beste izapide batzuk egiteko.

Deialdiak

IDENTIFIKATU

Identifikatzeko metodoak

Gero, **BAKq**-ekin identifikatu behar zara.  
NAN zenbakia eta pasahitza eskatuko dizkizute.

Behar bezala identifikatuta zaudenean, zure izena agertuko da goiko aldean, urdin kolorekoa.

Zati horretan bertan, **Nire deialdiak** sakatu, eta nahi duzun deialdia aukeratu behar duzu: **ORDENANTZA**.

HAUTAKETA-PROZESUAK

Deialdiak Nire deialdiak Berriak / Oharrak Nire emaitzak Nire puntuazioak Nire erreklamazioak eta errekursoak


Q Bilatu deialdiak

**LAGUNTZAKO LANGILEEN TALDE PROFESIONALEKO MANDATARIA**  
Deitzailea: Administrazio orokorra  
Deialdiaren fasea: Eskabideak aztertzea

**SUKALDEKO LAGUNTZAILEA**  
Deitzailea: Administrazio orokorra  
Deialdiaren fasea: Eskabideak aztertzea



Deialdian, eskuineko aldean, **ZERRENDAK  
ETA JARRAIPENA** izeneko botoi urdin bat  
agertuko da, sakatu hori.




Ondoren, botoi zuri bat agertuko da: **IKUSI  
PROZESUAREN HISTORIA**, sakatu hori



## Behin-behineko emaitzen zerrenda

agertuko dira,





Hor bertan, zure **emaitza** ere ikus dezakezu.

Horrez gain, azterketaren koadernotxoa eta erantzun zuzeneko txantiloia eskuratu ditzakezu.

#### TEORIKOAK- TEST-ARIKETA 1

Emaitzen behin-behineko zerrenda [REDACTED]

[Nire emaitzak](#)

## Zer egin dezaket behin-behineko emaitzen zerrendekin ados ez banago?

10 eguneko epea daukazu erreklamazioa egiteko.

## Nola aurkeztu dezaket erreklamazio bat?

Gorago aipatu dugun bezala, **ERREKLAMAZIOA** jartzen duen lekuan klikatu behar duzu.

Deitzailea: Administrazio orokorra  
Nire egoera: Prozesuan jarraitzen du  
Deialdiaren fasea: Erreklamazioak aurkeztea behin-behineko zerrendan

Erreklamazioak aurkeztea  
2024/02/19(e)tik 2024/03/01(e)ra

ESKABIDEA  
DATU PERTSONALAK ALDATU  
ERREKLAMAZIOA  
DEIALDIAREN INFORMAZIOA (LEIHO BERRIA)  
ZERRENDAK, JARRAIPENA...



Horri ematen diozunean, nahi duzuna azaldu ahal izateko leku bat irekiko da. Amaitzeko, bidali egin behar duzu.

## Noiz hasten da ERREKLAMAZIOA jartzeko epea?

Akordio hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasten da 10 eguneko epea.

Erreklamazio-epea ireki arte, aplikazioko botoia ez da agertuko

## Norengana zuzendu behar dut erreklamazioa?

Erreklamazioa Epaimahai Kalifikatzailearengana zuzendu behar duzu.

Erreklamazioak behin betiko emaitzen zerrendarekin erantzuten dira.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan.

Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria